

Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (I. atala)

Jabier Lertxundi

Ekonomia Zientzietan doktorea, Gestión del Conocimiento ITZARRI SLLren koord.

Artikulu hau gure gizartearentzako autoalternatiba autogestionario bat bilatzeko asmoz hasitako ikerketa-lan luze eta zorrotzaren ondorio da. Bertan alternatiba sozioekonomikoari egiten zaio erreferentzia, kapitalismoak, sozialismoak eta autogestioan oinarritutako esperientziak esparru honetan dituzten ekarpen garrantzitsuenak jasoz; aldi berean autoalternatibaren baitan erabilgarriak diren euskal nortasunaren ezaugarriak identifikatu ditugu.

Zehazki, artikuluan zehar hiru eztabaidetan izandako emaitzak aurkezten dira: Ebaluazioaren teorian, Gizabanakoaren inizatiban eta Demografian. Arlo bakoitzean ateratako ondorio nagusiak alternatiba sozioekonomikoa garatzeko oinarriak izan dira.

In this article there is gathered part of the exahustive and long investigation realized to look for an autoalternative automanagementy in our society. Concretly it refers to the socioeconomic alternative, gathering the most interesting contributions of the Capitalism, the Socialism and the Automanagement practices.

In the same way there have been identified the characteristics of the Basque identity that more agree with the autoalternative.

During the article there are gathered the conclusions extracted in three topics of debate: Theory of the Evolution, Personal Initiative and Demography. The conclusions realized in every topic of debate have been the sustenance on the one that rests the socioeconomic alternative.

Jarraian aurkezten den testua, hainbat urtetan zehar erakundeen kudea-
ketarekin erlazionaturiko ikerketa-lanen ondorioa da. Kudeaketa horren oinarrian
balio autogestionarioak hizpidetzat hartzen dituzten pertsonak aurkitzen dira.

Ikerketa sozioekonomikoaren xedea zehazterakoan, hipotesiaren abiapuntua
litzateke teoria kapitalistak nahiz sozialistak bilatzen zuten helburu nagusia, hots,
gizartearen beharrak asetzeko sistemak izatea alegia; halere, bakoitzaren
garapena ikusita argi dago ez dutela aipatutako xedea lortu.

Ikergai hauez guztiez gain, gure euskal nortasunaren hainbat ezaugarri oso
baliagarriak izan daitezke aipatutako ikerketa garatzeko orduan. Hori dela eta,
autoalternatibaren baitan erabilgarriak diren euskal nortasunaren ezaugarriak
identifikatu ditugu.

Ondoko lerroetan hiru eztabaidetan izandako emaitzak aurkezten dira: Ebolu-
zioaren teoria, Gizabanakoaren inizatiba eta Demografiarenak, hain zuzen ere.

Eboluzioaren teoria

Ideologia kapitalisten aburuz, gizakien bilakaera lege naturaletan oinarritzen da
(darwinismo soziala), norberaren ikuspuntutik abiatuta (oihanaren legea). Hori dela
eta, gizakien bilakaeran jazotako aldaketak aztertuz gero, kompetentziari hobekien
moldatzen zaizkionak dira baliabide ekonomikoak garatzeko gaitasuna hobetzen
dutenak. Jarrera horiek, imitazio-prozesuaren bitartez helarazten dira eta bana-
koaren garapena lortutako garaipenen bitartez neurtzen da.¹

Darwin-en eboluzioaren teoriak espezien eboluzioa gertakari frogagarria dela
egiaztatu badu ere, horrek ez du esan nahi gizaki eta animalien garapena berdina
denik. Beraz, esan genezake gizakiak garela planetako aldaketetara hobekien
moldatu garenak; gizakiok populazioa asko handitu dugun bitartean, animalia asko
ez dira horren ongi moldatu eta desagertu egin dira.

Horren aurrean darwinismo sozialaren argudioa ez dator errealitatearekin bat,
gezur hutsa da. Izan ere, ez zaio garrantzirik ematen gizakiaren egokitzeko gaita-
sunari, baizik eta bizitza erosoago bat eskainiko dion harraparitzarako gaiatasunari
eta baliabide berriak ustiatzeko duen goseari.

Ustiapena nahiz harraparitza egokitzeko gaitasunaren arrazoi gisa azaltzen
saiatzen denean, beste gezur baten aurrean gaude. Hala ere, guztiz kontrakoa
gertatu izan balitz, gaur egun gizateriaren historia sozioekonomikoa ez litzateke
darwinismo sozialean oinarrituko, baizik eta giza biztanleen garapen orekatu batean.

Darwinismo soziala teoria zientifikotzat hartzea ere oso zaila da; izan ere, teoria
hau garatu izanak giza bilakaerari lagundu baino gehiago, animalia mota batzuk
eta gutxiengo gizarte etnikoak desagertzea ekarri du. Honekin guztiarekin adieraz
genezake ezen, gizakiaren bilakaera sustatu nahi duen teoria garatzeak beste
hainbat espezie desagertzea bultzatzen badu, ez gaudela teoria zientifiko baten
aurrean, autosuntsipenaren teoriaren aurrean baino.

1. Ikus www.glocalrevista.com

Bizia duen edozein gauzaren oinarria bakteria dela dioten hainbat autorek autosuntsipenaren teoria baieztatzen dute. Teoria horrek gizakiaren harraparitza nahiz suntsipenerako grina sustatzen du, haren nortasuna aldatuz eta etorkizunearn suntsipen naturalak ahalbidetuz.

Hori dela eta, errealtatetik hurbilago geundeke gizakia harrapari handitzat hartuko bagenu. Halere, gai hauek garapen kapitalista babesten duten pertsonekin alderatuz gero, aurrerakuntza lortzeko asmotan ordaindu beharreko aspektua dela diote atsekabeturik sentitu arren. Horrekin adierazi nahi dute, gure baliabideen ustiapena alde batera utziz gero, ezin izango genituzkeela sistemak eskainitako gauza guztiak gozatu: kotxeak, bidaiak, autopistak, janaria, ale transgenikoak, bizi-itxaropena handitzea, Internet, droga-kontsumoa...

Esandako guztia egia da baina hori lortzeko ordaindu beharrekoa, berriz, oso altua. Batetik, onartu beharrean gaude kontsumoaren nagusitasunak psikologikoki astintzen gaituela, baina aldi berean ez digu plazerrik sortzen, frustrazioa baizik. Hau gainditzea erraza litzateke gutxiago kontsumituko bagenu, lasaiago biziko ginatke zoratu barik, kontsumo zoroa baztertuz.

Zoritxarrez kapitalismoaren garapenak banakoaren izaerari garrantzia eman beharrean, daukagunari edo jabetzari ematen dio. Bidezkoak bagina, Hirugarren Munduari doako teknologia berriak eskaini beharko genizkioke kolonizazioan "lapurtutako" baliabide anitzen truke. Sistema kapitalistak, berriz, kontrakoa egiten du patenteak alokatuz, manufakturak bertako merkatuan salduz eta eskulan merkea esplotatuz. Trukean haien kanpo-zorra urtez urte igotzen da.

Bestalde, etekin altuenak lortu nahiak politika ekonomiko bortitzak erabiltzea dakar, bai giza natura zein baliabide naturalen aurka joz. Egoera horrek ekonomikoki eta sozialki egitura hierarkikoak sortzen ditu: gutxi batzuek asko dute eta gehiengoak, berriz, ezer gutxi, non batzuek agitzen duten eta gehiengoak, ordea, men egin behar duen. Hori dela eta, alde aberatsa eta alde pobrea sortzen dira; beraz, hau guztia eboluzioa dela onartzea iseka egitea dela ondoriozta daiteke.

Aurreko guztiaz gain, baliabide naturalak agortzeak duen prezioa gaineratzen badugu, egungo garapen-prozesua txarra eta garestia dela ohartzen gara.

Hortaz, egindako azterketek adierazten dutenez, darwinismo soziala zientifikotzat hartzea akatsa dela esan daiteke. Izan ere, kapitalismoak ustiapena eta genozidioa bermatzeko tresnatzat erabiltzen du darwinismoa. Kontzeptu hauek gizartearen itxurazko garapenaren azpian ezkututzen dira, kapitalismoaren ikuspegitik noski.

Bestalde, sozialismo zientifikoaren bultzatzaileek Darwin-en teoria onartzen dute baina animalien eta gizakien bilakaerak bereiziz. Oihanaren legea animaliei aplikatu lekieke; ordea, materialismo historikoa eta dialektikoa lirarteke giza bilakaeraren oinarritzko legeak²:

2. Materialismo marxistaren inguruan sakontzeko K. Marx-en *Tesis sobre Feuerbach* testura jo daiteke, *Obras escogidas* liburuan, I. alea, Progreso Argitaletxea, Mosku, 1981, 7.-10. orrialdeetan.

La filosofía marxista es la negación total de la tendencia del hombre a ir más allá de la naturaleza. Proclama la completa independencia y, la autosuficiencia de la naturaleza y el hombre...Para el marxismo la naturaleza es toda la realidad. La idea de Dios es contraria a la realidad y aprecio de la naturaleza porque la trascendencia implica el desprecio de la realidad terrestre y la fuga del mundo³.

Marxismoa gizakiari aplikatu dakiokeen teoria izanik, materialismo historikoa eta dialektikoa bere txokoa dute teoriaren formulazioan. Beraz, pertsonen inguruko edozein esparru kontraesanean oinarritzen da, eta horren ebazpenak aurrerapausoak edo atzerapausoak ekar ditzake gizateriaren bilakaeran. Materialismo historikorekin ere antzekoa gertatzen da; izan ere, marxismoak dio historia ez dutela egiten gizaki boteretsuek, erregeek ezta inongo jainkok ere, baizik eta pertsonen eguneroko jardunak, hots, gizarteak berak.

Hala ere, materialismo historikoa eta materialismo dialektikoa gizakien oinarritzko legeak direla adierazteak ez du esan nahi gizaki guztiak zentzu sozioekonomikoan berdinak garenik. Sozialismo zentralizatuak gizarte-berdintasunaren ideia zabaldu arren, errealitate sozioekonomikoan banakoen inplikazioa ez da berdina izan; horrek, ondorioz, ereduaren garapenean oztopoak jarri ditu eta gizarte-berdintasunaren teoria zalantzan jarri du.

Esan beharra dago, eboluzioaren teoria ekonomiko hauek eboluzionismorantz jo dutela, hau da, desarrollismora; izan ere, ez dute inoiz aintzat hartu bakterioen eta genetikaren garrantzia pertsonen garapenean.

Horrela, esan genezake jakintsu askok mundu mailan dagoen desoreka ekonomikoa onartzen dutela, eboluzioaren teorian oinarrituta. Baina ez dira konturatzen bizitza molekularrean gizakiongoan eragiten duten aldaketak gertatzen ari direla, eta planetaren suntsipena gerta daitekeela. Nabariak dira, adibidez, klima-aldaketak, poluzio atmosferikoa, ur zikinak. Nork jakin natura-iturrien ustiapenak nora garamatza? Boteretsuak ez daude lasai eta planetaren ustiapena agortzen ari denez, kapitalismoaren metatzeak aserik jarrai dezan, espazioaren konkista dute helburu.

Bestalde, botere faktikoei ez zaie inoiz interesatu gizabanakoak bere etorkizuna kontrolatzeko gai izatea, ezta euren historia propioa idaztea ere. Beraz adierazitako teoria zientifiko hauek guztiak oso babestuta daude eta gutxi batzuek baino ez dute hauetara heltzeko aukera.

Teoria horietaz gain badaude sozialismo utopikoan sorturiko beste esperientzia garrantzitsuak ere, esaterako, kooperatibismoa eta talde-lanean oinarritutako erakundeak. Azken horiek, materialismo historikoa eta materialismo dialektikoa onartzen dituzte baina gizakiaren banakotasunaren garrantzia ahaztu gabe, hots, gizakiaren garapen pertsonala lortzeko ezinbestekoa da indibidualtasuna garatzea. Azken teoria hauek hirugarren bidea direla esatea txorakeria da, bidezko garapen sozioekonomikoa bakarra baita.

Aipatzekoa da teoria autogestionarioak kapitalismoan eta sozialismoan txertatzen direla, beraz, sistema horien azpisistematzat jo daitezke. Gaur egun arte, komunitate autogestionario handiak sortzea helburu zuten esperientzia urri

3. Ikus www.terra.es/personal2/samidas/cap3.htm (3. kapitulua, 3. orria).

batzuez aparte, gehienek sistema nagusien barnean “gheto” edo komunitate txikiak eratu dituzte, gizartean eragin handirik izan gabe.

Beste zentzu batean, euskal nortasunaren ikurrek ez dute eboluzioaren teoria baieztatzen; aldiz, teoria bakterianoetatik hurbilago daude. Horrela, gure arbasoek uste zuten unibertsoaren elementuak berdintasunez erlazionatzen zirela. Panteismoak aurkeztutako teoriaren barnean nabaria da aipatutako berdintasunaren ideia:

Panteísmo. Etim.: del griego “pan” (todo) y “theos” (Dios). La creencia de que todo es divino. No existe entonces un Dios personal sino que Dios y el universo son la misma cosa. No habría entonces, en esencia, distinción entre Dios y el mundo. Esta es la creencia sostenida por el hinduismo y otras religiones⁴.

Aipatutako erlijioen artean euskal mitologia sartuko genuke, kontuan hartuz herri zahar hau ekialdeko erlijioekin erlazionatua dagoela zentzu horretan. Unibertsoaren elementuen teoriak ez du nagusitasunaren ideia onartzen; izan ere, unibertsoan aurki daitezkeen gauza guztiak beharrezkoak direla uste dute. Azken horrek adierazten digu berdintasunaren kontzeptua oso nabarmena zela, eta pertsonetikiko zein naturarekiko errespetua oso handia zela. Hori dela eta, esan dezakegu edozein elementu mintzean beste guztiak ere kaltetzen direla, guztion arteko oreka apurtuz, denak baikara beste guztien parte bat. Euskal mitologiaren ikur panteista nagusia Anbotoko Mari jainkosa litzateke, Alfontso Martínez Lizarduikoa irakaslearen ustez bera da errealitate panteistaren protagonista nagusia Euskal Herrian:

Jainkosa hura (Mari), beste ezer baino lehen, errealitatearen sinbolo panteista zen; alegia, orotasunaren (natura, animalia, landare, fenomeno zerutiar eta izakiekin) adierazpena. Mari, dirudienez, “dena denarekin” lotutakoaren isla baino ez da. Mari orotasuna izanda, Euskal Herriak ez zuen behar izan, beste herrietan gertatu zen moduan, errealitatekanpoko jainkoak sortzea. Gainera, Mari orotasuna izanda, edozein izakitan transmutatu liteke; alegia, aker, haritz, tximista edo gizakitan⁵.

Segur aski lehenago idatzitakoa irakurri dutenen artean, askok ez diote panteismoari gaurkotasuna emango, hala ere, Euskal Herrian ez da horrela, eta giza harremanetan nabaria da filosofia panteistak duen garrantzia. Odolean gure arbasoen geneak daramatzagu eta horrek ere eragina du erabakiak hartzeko orduan.

Panteismoak adierazitako kosmosaren berdintasunak sistema sozioekonomikoa ere berdintasunezko zentzuan ulertzen du⁶. Emakumearen kasuan

4. Ikus www.corazones.org/diccionario/panteismo.htm.

5. Alfontso Martínez Lizarduikoren *Marik bizirik dirau* artikulutik ateratakoa.

6. Aurretik aipatutako Alfontso Martínez Lizarduikoren liburutik: *Euskal Zibilizazioa*, bertan euskal matriarkatuaren garrantzi sozioekonomikoa azpimarratzen du, beraz, kapitulu honen hainbat testu oso interesgarriak dira. Zentzu horretan, Marija Gimbutas-ek eginiko zenbait ikerketa-lan ere interesgarriak izan daitezke. Bere aburuz, antzinako europar zibilizazioetan emakumeak jainkoak ziren, eta ondorioz sexuen arteko berdintasun handiagoa izaten zen; ikus *Dioses y diosas de la vieja Europa*, Istmo argitaletxea, Madril (1991); eta *El lenguaje de la diosa*, Asturiano argitaletxea, Oviedo (1996). Beste liburu baliagarria Pepe Rodríguez-en *Dios nació mujer*, B argitaletxea (1999). Joxe Miguel Barandiaranen ikerketa-lanek ere garrantzi handikoak dira, batez ere euskal mitologia eta emakumearen rolarri dagozkienak, *Diccionario Ilustrado de Mitología vasca*, Obras Osoak, La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxea, Bilbo (1972). Josu Naberanen *La vuelta de Sugaar* liburua ere interesgarria da, Basandere (Donostia) argitaletxeak 2001ean argitaratutakoa.

ezaugarri bereziak hartzen ditu, Euskal Herriko historian emakumeek garrantzi handia izan baitute. Zentzu horretan ezin ahanztu daiteke antzinako euskal gizarte matriarkatuaren arabera antolatzen zela, eta adibide sinbolikoa Mari Jainkosa litzateke. Emakumea etxeko nagusia zen, baina horrek ez zuen esan nahi familiako gainerako kideak esplota zitzaizkeenik. Beraz, aipatutako berdintasuna 2 zentzutan islatzen zen: batetik sexuen arteko berdintasunean, bestetik gizarte-berdintasunean. Azken horretan, froga nabarmenena foru batzuetan aurkitzen dugu; antolaketa-arauak berdintasunean oinarritzen ziren eta noble izendatzen zituzten, eta gizarte-diskriminazio politiko zein ekonomikoa saihesten zuten.

Beraz, autoalternatibaren gizarte-bilakaera euskal ikuspuntutik abian jartzeko, oinarritzeko hiru atal hauetan eztabaidak sorraraztea nahitaezkoa izango litzateke:

- Autoalternatibak materialismo historikoa zein materialismo dialektikoa zientziazat onartzen ditu, darwinismo sozialak ez du zientziazat hartzea merezi eta ulertzen da materialismoaren teoriak ez duela giza bilakaera osorik azaltzeko aukerarik, ez baitu genetika eta bakterioen teoria bideratzen.
- Teoria autogestionarioaren barnean elementu interesgarriak nabarmentzen dira, materialismoa eta banakotasuna batuz, sistema komunitarioa zein norberarena landu daitezke.
- Euskal gizarteak, bere nortasun indigena dela eta, ez du giza bilakaeraren ondorioztat hartzen garapen mugaezina; izan ere, azken hori onuragarria eta orekatua beharko zen naturarentzat eta ez da horrela izan. Horrez gain, egun bakterio eta molekuren azterketak garrantzi handia izaten duenez, benetako eboluzioa hortik datorrela pentsatzea egokia da eta maila horretan burua kokatzeko pentsamendu indigenak arrazionalista hutsak baino ahalmen handiagoa duela.

Laburbilduz, autoalternatiba euskal ikuspuntutik giza bilakaera definitzeko materialismoan oinarritzen da, norberaren eta beste pertsonen arteko erlazioak nahastuz eta euskal nortasun indigena inoiz ahaztu gabe.

Gizabanakoaren inizatiba

Kapitalismoa produkzio-bideen jabetza pribatuan oinarritzen da, norberaren interesak eta berekoikeria bultzatzen ditu eta ekimen pribatua bihurtzen da sistemaren motor nagusia.

Horren kontrako elkartasuna litzateke, hots, sistema sozioekonomiko sozialistaren ardatza. Filosofikoki, abiapuntua litzateke klase boteretsuek gainerako klaseak zapaltzearen ondorioz antzinako giza antolaketa kolektiboa eta bere garapen historikoa eskasa izatea. Hori dela eta, marxismoak klase-elkartasunean oinarritutako (langilegoa) gizarte aurrerakoia lortu nahi du.

Esperientzia autogestionarioek ekimen pribatua eta giza komunitatearekiko elkartasuna bultzatzen dituzte aldi berean, beraz, kapitalismoan nahiz sozialismoan txertatu izan dira.

Euskal nortasunaren ikurrek ere badute erlazio zuzena printzipio hauekin eta naturarekin, hein handi batean bere nortasun indigena mantendu izanaren ondorioz.

Zentzu horretan, kapitalismoa Hobbes-ek proposatutako teoria filosofikotik abiatzen da, zeinetan berekoikeria-sentimenduak giza beharrei aurre egiteko giltzarri gisa aurkezten diren. Azter ditzagun teoria intelektual hauek babesten dituzten argudio batzuk (Hobbes, 1987):

Un hombre egoísta, sin ninguna duda, buscará sacar el mayor de los provechos a cuanta oportunidad se le presente, pero para obtener los beneficios deseados en una sociedad moderna deberá satisfacer a una gran cantidad de personas, a través de bienes y servicios que las masas requieran a bajo precio y mejor calidad. El capitalismo en sí busca que los hombres tengan este sentimiento egoísta, pues de tal manera, por un afán de lucro personal serán muchos los beneficios con este tipo de egoísmo, que en su afán de ganancia deberán satisfacer los requerimientos de sus conciudadanos, de la sociedad.

...es absurda toda concepción que busque oponer "egoísmo a solidaridad"... Los hombres no podrían subsistir sin ningún tipo de asociación de individuos, éstos no tendrán cómo cubrir sus necesidades si escapan a la vida en sociedad. Él es la "criatura que más ardiente deseo de sociabilidad tiene en el universo y está dotada para ello con las mayores ventajas. No podemos concebir deseo alguno que no tenga referencia a la sociedad" (Hume, 1984: 552-553).

Adam Smith ekonomilariak ere giza berekoikeria garapen ekonomikoaren oinarritzat hartzen du:

Pero es sólo por su propio provecho que un hombre emplea su capital en apoyo de la industria; por tanto, siempre se esforzará en usarlo en la industria cuyo producto tienda a ser de mayor valor o en intercambiarlo por la mayor cantidad posible de dinero u otros bienes... En esto está, como en otros muchos casos, guiado por una mano invisible para alcanzar un fin que no formaba parte de su intención. Y tampoco es lo peor para la sociedad que esto haya sido así. Al buscar su propio interés, el hombre a menudo favorece el de la sociedad mejor que cuando realmente desea hacerlo⁷.

Kontzeptu ekonomiko hauei buruzko eztabaidetan (sortutako ikerketa-taldeek burututakoak) berekoikeriaren eta indibidualtasunaren artean ezberdindu beharko litzatekeela ondorioztatu da; izan ere, berekoikeria indibidualtasunaren baitan dagoen jarduera sozioekonomiko insolidario gisa definitzen badugu, sentimendu horren erabilera sozioekonomikoak ez luke balioko giza burujabetza lortzeko.

Bestalde, indibidualtasuna garapen sozioekonomikorako ezinbestekoa dela onartzen da, beraz, ekimen pertsonalaren beharra eta horren ezarpen logikoena jabetza pribatua dela ondorioztatzen da. Baina egia da, orobat, giza burujabetza lortu nahian ezin garela soilik merkatu-legeetan oinarritu, zentzu horretan administrazioaren esku-hartzea beharrezkotzat jotzen baita. Etekinen birbanaketa gauza dadin.

Are gehiago, jabetza pribatua jabetza sozialaren alde bat dela ulertuz gero, jabetza pribatua erabilera-jabetza (usufruktuan) bilakatu beharko litzateke, eta espekulazio ekonomikoa ekidin. Norberekia babesten duten tesi hauetan ez da inoiz aipatzen eskularru zuridun lapur askoren aberastasuna espekulazioan oina-

7. Ikus Smith. Aldi berean, utilitarismoaren aitzindaria izandako Jeremy Bentham-en *Utilitarismo* y la *utilidad marginal* lana kontsulta daiteke.

rritzen dela, betetzen dituzten karguen bidezko informazio pribilegiatua erabiliz. Hori dela eta, ez da kasualitatea ekonomia kapitalistaren egungo ardatza espekulazioa izatea.

Zentzu horretan ondorioz tamalgarriena hauxe litzateke: kontsumo-hazkuntzaren bitartez jendea guztiz lokartuta dagoela eta ez dela konturatzen espekulazioaren bidez bere ondareari, eta beraz guztion ondareari, egiten ari zaion lapurretaz, batik bat, baliabide naturalei dagokienez (airea, lurra, ura). Kapitalismoak jabetza pribatua bermatzeko, jabetza soziala pribatizatzen du eta denborarekin desagerrarazi. Beraz, mundu justuago bat lortzeko asmoak asko mugatzen dira.

Marx eta Engels izan ziren elkartasuna sistema ekonomikoaren funtsezko tresnatzat ezarri zutenak. *Manifestu komunistaren* aldarrikapen nagusiak («herri guztietako langileak batu»)⁸ lortu nahi duena hauxe da: langileak ezarritako boterearen aurka altxatzea eta sistema ekonomiko burujabe nahiz bidezkoago baten klase iraultzailea bilakatzea.

Behin boterea hartuta, administrazio sozialistak langileak eta nekazariak ordezkatzeko lituzke. Beraz, funtsean kudeaketa ekonomikoa eta sozialismoaren eraikitze-prozesua administrazioaren esku gelditzen dira.

Beraz elkartasuna lurralde sozialisten arteko merkataritzaren oinarria da. Hau egituratzeko “bidezko merkaturia” deiturikoa asmatu zen, lurralde ezberdinen produkzioaren eta bere trukearen arabera, COMECON izeneko hain zuzen⁹.

Hala ere, sozialismo zentralizatuaren garapenak frogatu du elkartasuna ezarpen sozioekonomiko gisa inposatzeak indibidualtasuna kaltetu dezakeela eta, ondorioz, gizartea uniformizatzen dela, eta horrek ekonomiaren garapena oztopatzen du. Agerikoa denez kaskarkeria eta elkartasuna ez dira sinonimoak, eta norberekeriak desberdintasuna sustatzen duen bezala, argi dago kaskarkeriak axolagabekeria bultzatzen duela.

Bestalde, elkartasunak indibidualtasunaren baitan eragin ezkorra duela onartzeak adieraziko luke elkartasunak ekimen pribatua oztopatzen duela. Beraz, itxuraz ankerkeria hutsa den adierazpena egia bihurtzen da; izan ere, hainbat lurraldetan, elkartasun-printzipioen izenean, gizakion sormena zapaldua izan da eta, ondorioz, eraginkortasunik gabeko sistema ekonomikoak garatu dira.

Horrela gertatu zen COMECON sistemarekin, nazioarteko merkatu justua izateko jaioa eta funtsean hainbat lurralderen produkzio-espezializazioan oinarritutakoa, lurralde kapitalistekiko atzerapen teknologikoan areagotuz. Horregatik, Berlineko harresia erortzean, atzerapen handiagoa zuten hainbat lurraldek sekulako krisia jasan zuten.

8. *Manifestu komunista* hainbat ediziotan aurkitzen da; guk pare bat aipatuko dugu. Marx K. eta Engels F.: *Obras Escogidas*, Dirección Nacional de Escuelas de Instrucción Revolucionaria, Habana, 9.-35. orrialdeak. Interneten ere kontsulta daiteke, hurrengo helbidean sartuta adibidez: [http://www.marx2mao.org/M2M\(SP\)/M&E\(SP\)/CM47s.html](http://www.marx2mao.org/M2M(SP)/M&E(SP)/CM47s.html).

9. Laburdura hauen euskarazko itzulpena Elkarren Laguntza Ekonomikorako Kontseilua (ELEK) litzateke.

Hala ere, arazoak plazaratuta daudela, beharrezkoa da geure buruari konponbidea non dagoen galdetzea. Horretarako, mundu globalizatu batean gizateriaren benetako garapena elkartasunaren eta norberaren ekimenaren sustapenean oinarritzen dela ulertu beharko genuke.

Ekimen indibidualaren errespetua pertsonok dugun sormenarekin eta ahalmen horrek eragindako gogobetetze mailarekin erlazionatzen da; aldiz, elkartasuna badagoela frogatzen da, lortutako produkzio-etekinen birbanatze-prozesuak lurraldeen arteko ezberdintasun maila orekatzea lortzen denean.

Bestalde, elkartasuna ez da karitate kristauaren sinonimoa, baizik eta birbanaketa ekonomikoarena. Testuinguru horretan Hirugarren Munduaren “kanporra” desagertzea eta laguntza teknologikoa lirarteke elkartasunean oinarritutako estrategiaren bermeak.

Birbanaketari eragiten dioten neurri hauez gain, Lehen Munduan kontsumismo itsua zalatzen jarriko lukeen eztabaida iraunkor bat sortu beharko litzateke. Autoalternatiba posible dela uste dugunok, indibidualismoak bultzaturiko kontsumismoa baztertu eta elkartasunean bermatutako balioak bultzatu beharko genituzke. Auzokide nahiz lagunaren aurrean baliabide gutxiagorekin bizi gaitzkeela froga dezakegu, aldaketa ekonomiko zein soziala lortzeko eragile garela egiaztatuz. Funtsean, zoriotsuagoak garela hain harrapariak izan gabe.

Helburu hauek lortuz gero, hazkunde ekonomikoari dagokionez kontzeptu berriei baliatuko ginateke, sistema kapitalistak edo sozialismo zentralizatuak eskaintakoa baino bide atsegina goa lortzeko iraultza ahalbidetuz.

Aurrekoa berretsiz, autogestioan oinarritutako hainbat esperientziak frogatu dute elkartasuna eta norberekeria txertagarriak direla. Espreski indibidualki lortutako etekinen bidezko birbanaketan dago gakoa, zeren horrek pertsonen arteko elkartasuna areagotzen baitu. Aipatutako birbanaketa zertzen ez denean, ordea, desbenditasun sozialak hazi egiten dira.

Euskal nortasunaren ikurrei dagokienez, egungo adibidetzat lur komunalak har daitezke. Lur komunalen erabileran norberekeriaren eta elkartasunaren arteko nahasketa dagoela ondoriozta daiteke. Izan ere, filosofia panteistarekin jarraituz, historikoki Euskal Herrian sentimendu sozial eta komunitarioak garrantzi handia izan du. Erromatarren garaian Euskal Herriko lurrak, komunalki antolatzen ziren (ondoren ere lur-eremu askok egituraketa berdintsuari jarraitu zioten). Lur komunalak, airea eta ura bezala, ezin ziren pribatizatu, guztion baliabideak hiru ardatz horien arabera bermatzen baitziren. Beraz, lurra denona izanda, ez zegoen pribatizazioa bultzatzerik.

Erromanizazio-prozesua bermatzen zen heinean, komunikabideak hobetuz joan ziren (gehienbat Araban eta Nafarroan), halere Euskal Herriko gune basatiagoetan antolatzeko era berdina mantendu dute gaur egun arte, hots, lur komunalen arabera. Zoritxarrez, burges-iraultzatik aurrera oso abiadura bizian gertatu zen lurraldeen pribatizazioa. Bizkaia eta Gipuzkoa izan ziren gehienbat pribatizatutakoak; izan ere, lurralde horiek oso aberatsak ziren bai mineraletan bai burdingintzarako azpiegiturretan.

Hortaz, gaur egun ez da kasualitatea Nafarroan eta Araban lur komunalen dentsitate handiagoa egotea. Nafarroaren kasuan, Bernardo Estornés-ek hauxe aipatu zuen:

En la Comunidad Foral de Navarra las tierras de dominio municipal o concejil y aprovechamiento vecinal alcanzan una cifra equivalente al 45% de la superficie geográfica (Floristán Samanes, 1986), que superaría el 54% si a estas se sumasen las demás tierras de aprovechamiento vecinal no municipal –Bardenas reales, antiguos montes de la Corona, facerías, etc. (Estornés, 1998).

Argi dago beraz, Araban eta Nafarroan lur komunalen antolaketa handiagoa sumatzen dela, nahiz eta erromanizazio-garaian lehenbiziko lur-pribatizazioak bertan izan.

Hori dela eta, Euskal Herrian oinarri ekonomikoa komunala izan dela esan genezake. Ignacio Olabarriren hitz hauek ondorioztatutakoa baieztatzen dute:

El aprovechamiento comunal de los pastos por los vecinos de un valle; la distribución de los pastizales en “seles”, los contratos de “pasería” o “facería” que otorgan derecho a los rebaños de un valle para pasar a otro, y las “parzonerías” o uniones de diversos valles para el aprovechamiento común de los extensos pastizales de las altas sierras; la propiedad comunal de las cabañas o chozas utilizadas durante el verano por los pastores; la unión de varios rebaños de distintos propietarios en uno solo a cargo de un pastor común y la existencia de rebaños comunales [...] (Olabarri, 1985).

Adibideok egiaztatzen dute nekazari- eta abere-ustiapenak auzolanean burutzen zirela. Aipatzekoa da “sarioa”; izan ere, holakoetan lan komuna eta jabetza pribatua nahasten ziren. “Sarioa” lur komunalaren zati bat zen, 500 metroko diametroa zuen zirkulu bat neguan eta 250 metrokoa udan. Erdian “Austarri” izeneko haitz bat jartzen zen, zirkulua mugatzeko asmoarekin. Zirkulu horren barnean, komunitatearen baimenarekin, familia batek bere animaliak zaintzen zituen. Kudeaketa pribatua izan arren, jabetzaren kontzeptuak nortasun komunala mantentzen zuen.

Lur komunalak hobekiago mantendu dira sistema burgesaren administrazioak kontrol txikiagoa izan duen aldeetan. Nafarroako iparraldean eta Zuberoan komunal handiak daude, non euskaldunok hara joatean asko identifikatzen garen bertako ohiturekin.

Beste adibide argigarri bat komunaletan bizi diren artzainen txaboletan aurkitzen dugu. Txabola horietan ezin zuten teilatuan teilarik jarri, horrek jabetza pribatua zela adierazten baitzuen. Batzuetan atea zabalik mantentzea eskatzen zieten artzainei.

Gaur egungo joerak aztertzean argi dago jabetza komunitarioak ez duela lekurik gizarte ekonomiko garatuetan. Jabetza komunala mespretxatu egiten da; jabetza pribatuarekin, berriz, kontrakoa gertatzen da. Dena den, lur-eremu komunalen iraupena beharrezkoa da, autoalternatiba ulertu eta ezarri nahi badugu.

Aipagarria da edozein pertsonaren jabetza pribatuarekin arazoren bat sortzen denean erreakzio bizia eta krudela ematen dela, eta horrek frogatzen du jabetza

pribatuari ematen zaion garrantzia; arazoa esparru komunal batean denean, ordea, erreakzioa ez da apenas aditzen ezta ezagutzen ere.

Autoalternatibak banakotasunaren eta elkartasunaren kontzeptuak onartzen ditu baina bien arteko erabilera orekatua lortzeko asmoarekin. Zentzu horretan autoalternatiba sozioekonomikoaren definizioa hau litzateke: pertsona baten jarduera positibo batek taldearentzako baliabide sozioekonomikoak lortzea, baina taldea osatzen duten gainerako pertsonen ekimen partikularra alboratu gabe.

Beraz, autoalternatibaren motor sozioekonomikoak diren norberekeria/elkartasunaren oinarritzko eztabaidak hauek lirateke:

- Ondo ulertutako elkartasun sozioekonomikoa ez da karitatezko jardunekin konpontzen, baizik eta transferentzia teknologikoekin, munduan dauden ezberdintasun ekonomiko ikaragarriak orekatzen joan daitezten.
- Euskal ikur komunitarioak mantentzea beharrezkoa da autoalternatibaren garapena gerta dadin. Hau da, gure ondasun nagusia ez da jabetza pribatua, baizik eta baliabide naturalak, eta horien kudeaketa, parte-hartze prozesu baten ostean, denon erabakiaren ondorioa da.

Demografia

Gizakien garapenean etengabeko demografia-hazkundera da arazorik larrienetariko bat. Horrela jarraitzekotan baliabide naturalak agortzeko arrisku handia dago.

Beste arazo larri bat demografia-hazkunderaren desorekan legoke; izan ere, estatu garatuagoetan belaunaldi-aldaketak arriskuan daude eta, jakina denez, adin handiko gizarteek arazo sozioekonomiko ugari sortzen dituzte.

Lurralde azpigaratuetan eta gizarte garatuagoko klase baxuetan, ordea, hildakoak baino ume gehiago izaten dituzte; ondorioz aurreko desoreka orekatzen da, nahiz eta munduko populazioak handitzen jarraitzen duen.

Sistema kapitalistak Malthus-en teoriarekin bat egiten du demografia aztertzean. Teoria horren arabera, ekonomia-desorekaren arrazoi nagusia litzateke populazioa baliabide naturalak baino azkarrago hazten dela. Aldi berean, gaixotasunak, miseria eta hondamendi naturalak kontrol positibotzat jasotzen ditu sistema kapitalistak; aldiz, muga moralak prebentziozko kontrol gisa identifikatzen ditu.

Horrela kontrol positiboek demografia-leherketak sortutako arazoak bideratuko lituzkete. Jarrera teoriko hau arriskutsu bihurtzen da; izan ere, hondamendi naturalek hildako asko eragiten dituztela onartzen badugu, egia da ere hildako horietako gehienek ez dutela egoerari aurre egiteko behar beste baliabide nahiz azpiegiturarik.

Gainera, kontrol positibo horiek onartzean heriotza-tasa areagotu dezakegu eta, ondorioz, hazkunde demografikoan dagoen desoreka orekatu. Pentsakera hau genozida eta zinikoa bihur daiteke gudak, goseteak edo izurriteak kontrol positibotzat onartzen direnean.

Horrela, arazo honen inguruan egindako eztabaidetan, Malthus-en teoriaren kontrol positiboari zientifikotasuna kendu zaie, arazoen iturburu gisa demografia azpimarratzen dutelako, sistema kapitalistaren aplikazioa nabarmendu beharrean.

Egia esan, arazo demografikoa eta darwinismo soziala erabat erlazonaturik daude. Gizakia mundu honetan nagusia dela adieraztean, normala da gero eta gizaki gehiago egotea beste espezie asko desagertuz dohazen heinean.

Burututako eztabaidetan jarrera ezberdinak egon dira, askotan ikerketan parte hartutako pertsonen sexu-ezberdintasunarekin bat egiten dutenak. Dena den, ezberdintasunak ez dira arlo sozioekonomikoan jazo, baizik eta psikologikoan eta ardura familiarraren arloan, zeintzuetan emakumeek gizonek baino ezagupen sakonagoak dituztela frogatu duten.

Zentralizatutako sistema sozialistan, kontrol prebentiboak modu egokian erabili dira. Kontrol horiek hezkuntza-sisteman eta herritarrei eskaini beharreko balioetan oinarritu ziren hasiera batean. Gainera ugalketaren arduraren gain eragiteaz gain, kontrol positiboak era logikoan ezartzen saiatu dira antisorgailuak, abortua eta umeen adozioa bultzatuz.

Hala ere, lurralde sozialista batzuetan ume kopuru jakina izateko inposaketak bestelako tentsioak eragin ditu eta, ondorioz, hartu beharreko erabakiaren aurrean askatasun eza nagusitu da.

Erljio kristauak antisorgailuen kontra izandako jarrerak ere badu garrantzia garapen demografikoan. Horrela, baliabide gutxi dituzten fededunek ez dute inongo erreparorik izaten umeak edukitzeko; kristau aberatsek ere arduragabekeriarekin birsortzen dute (horietako asko Opus Deikoak).

Lurralde sozialistetan, erlijioaren kontu hau ez dute hainbeste pairatu, segur aski, marxismoaren sortzaileak erlijioa herriaren droga izendatu zuelako. Hori dela eta, herri sozialistetan ez ziren erlijioaren ideiak zabaldu.

Amaitzeko esan beharra dago, sozialismoak prebentzio-kontrolak onartu eta positiboak baztertu dituela, gizatasun eza bultzatzen zutelako.

Egindako eztabaidetan argi geratu da kontsumismoak jaiotza-tasaren inhibizio-elementu gisa diharduela; lurralde azpigaratuetan, ordea, demografia-tasa handiagoa da bizi-baldintzak ezberdinak direlako. Beraz, argi dago bizi-baldintzak askoz hobeak diren tokietan jaiotza-tasa txikiagoa izateko joera dagoela.

Esandakoak Malthus-en legea ezeztatzen du; izan ere, desoreka ekonomikoa ez da sortzen munduko populazioa baliabideak baino azkarrago hazten delako, baizik eta pertsona aberatsek, norberekeriari jarraituz, jaiotza-tasaren kontrako jarrerak hartzen dituztelako. Aldiz, jende txiroaren demografia handitzearen arrazoia biziraupena bermatzea da.

Dena den, kapitalismoak ez du demografia kontrolatzen jakin edo ez du kontrolatu nahi izan, horrela eskulan merkea izatea bermatu baitu. Arazoa jende txiroaren ugalketan dago, hainbeste izanda sistema lehertzeko gaiatsuna ere hazten delako.

Beraz, autoalternatibak kontrol positiboak baztertzeko dituzte, hondamendi naturalak ez baititu kontrol positibotzat identifikatzen, ezpada boteretsuek txiroekiko gauzatzen duten beste esplotazio mota bat bezala. Izan ere, hildakoak gutxiago lirateke guztiok etxebizitzak, azpiegitura egokiak, hezkuntza eta doako osasuna jasotzeko aukera izango bagenu.

Bestalde, aipatzekoa da lurralde sozialistek, hondamendi natural baten aurrean, autoantolaketa era eta prebentzio-sistema oso interesgarriak sortu zituztela. Sistema horiek ezarri izanak hildako asko ekidin ditu.

Prebentzio-kontrolari dagokionez, mundu mailako jaiotza-tasa kontrolatzeko formazio-programa bat eskaini beharko litzateke, bai demografia-hazkunde azkarra duten lurraldeetan bai jaiotza-tasa txikiagoko herrialdeetan. Beraz, noberekeriarekin eta paradisu kontsumistarekin zuzenki erlazionaturiko hezkuntza nahiz konpromisoen alorreko arazo baten aurrean gaude.

Aldaketa hau eman dadin, ezinezkoa da banatzaileek lortutako funtsezko produktuen birbanaketan duten askatasuna errespetatzea, noberekeria disuasio-elementu gisa arituko litzatekeelako eta ondorioz gizarte osoaren biziraupena oztopatuko lukeelako. Hau da, arazo demografikoa konpontzeko lehenbizi mundu mailako bidezko birbanaketa bermatu beharko litzateke.

Egindako eztabaidetan eta euskaldunak izanda, euskal nortasun indigenak demografian eragiten duelakoan gaude. Eta pentsamolde horrek dirauen bitartean, hazkunde demografikoa naturarekin zuzenki erlazionatuta egongo da. Hau da, geroz eta baliabide natural gutxiago orduan eta ugaltze gutxiago eta alderantziz. Beraz, giza garapenaren eredia baliabide naturalak eta espezieak mantentzean oinarritzen da, eta ez horien ustiapen etengabearen. Pentsamolde honek giza garapen orekatua bermatuko luke.

Zentzu horretan, ekologistek espezie baten hazkundea harrapari kopuruaren jaitzierarekin erlazionatzen dutela onartzen dugunean, ez dugu teoria hau gizakiokin aplikatzen.

Garapen demografikoari dagokionez, autoalternatiba honelako eztabaidetan oinarritzen da:

- Malthus-en kontrol positiboak ez dira zientifikotzat hartzen; izan ere, demografia-hazkundea ez da sistema sozioekonomikoen arazoaren sortzailea, ezarritako sistema horren ondorioa baino.
- Kapitalismoak hazkunde demografikoaren desproporzioa erabiltzen du jende txiroarengan eragiteko, horiek deuseztatu edota eskulan merke bezala erabiltzeko.
- Konponbidea nazioarteko hezkuntza-prozesua bultzatuz eta guztientzako doako prebentzio-kontrolak ezarri etor daiteke. Hala ere, azpimarratu behar da aurretik munduko aberastasunaren birbanaketaren arazoa konpondu beharko litzatekeela.
- Azkenik, bizitza naturalaren ikuspuntu indigenak borondatezko ugalketaren eta baliabide naturalen arteko harremana uztartzen du.

Bibliografia

- Barandiaran, J. M. (1972): *Diccionario ilustrado de Mitología Vasca*, Obras Completas, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Bentham, J. (19678): *Utilitarismo y la utilidad marginal*, Escritos Económicos, Fondo de Cultura Económica, México.
- Estornés Lasa, B. (1998): *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, XLVI. Lib., Auñamendi, Donostia.
- Gimbutas, M. (1991): *Dioses y diosas de la vieja Europa*, Istmo., Madril.
- , (1996): *El lenguaje de la diosa*, Asturiano, Oviedo.
- Hobbes, Th. (1987): *Leviatán*, Madril.
- Hume, D. (1984): *Tratado de la naturaleza humana*, Bigarren liburua, Orbis, Buenos Aires.
- Martínez Lizarduikoa, A. (1998): *Euskal Zibilizazioa*, Gaiak, Donostia.
- : “Marik bizirik dirau”, *Gara*.
- Marx, K. (1981): *Tesis sobre Feuerbach*, *Obras escogidas* liburuan, I. alea, Progreso Argitaletxea, Mosku.
- Marx, K. eta Engels, F. *Obras Escogidas*, Dirección Nacional de Escuelas de Instrucción Revolucionaria, La Habana.
- Naberan, J. (2001): *La vuelta de Sugaar*, Basandere, Donostia.
- Olabarri, I. (1985): *Tradiciones cooperativas vascas*, Caja Laboral Popular, Donostia.
- Rodriguez, P. (1999): *Dios nació mujer*, B argitaletxea.
- Smith, A.: *La Riqueza de las Naciones*, IV. liburua, 2. kapitulua.

Web guneak:

- www.glocalrevista.com
www.terra.es/personal2/samidas/cap3.htm
www.corazones.org/diccionario/

